



BORTZIRIETARAKO  
EUSKARAREN II.  
PLAN ESTRATEGIKOA

2021-2024



## ⇒ SARRERA

Bortzirietako Euskararen II. Plan Estrategikoaren (2021-2024) bigarren urteko jarduera planari buruzko memoria da hau. Memoria honen helburua da 2022ko planak ildo zuzen eta arloz arlo jasotzen dituen jardueren gaineko azalpen eta ebaluazio laburra egitea.

Jardueren ebaluazioa modu bisualean egin nahi izan da. Hortaz, jarduera burutu den edo ez, edo bertze modu batean garatu den, berde, gorri eta laranja ageri da. Eta horien azpian jardueraren ebaluazio kualitatibo laburra agertzen da. Jakina, 2021-2024 planaren bukaeran memoria sakonagoa egingen da, kuantitatiboki eta kualitatiboki datu gehiagoz hornitua.

Beraz, eta memoria jasotzen duen dokumentu honetan hasieratik planaren egikaritze maila ikusteko, semaforo moduko laburpena aurreratzen dugu. Berdez daude aurreikusi bezala garatu diren jardueren kopurua, gorri burutu ez direnak (denbora faltagatik, bertan behera gelditu direlako, geure aldetik aurreikusi baina bertze eragileekin elkarlana eskatzen zutelako, ez delako horretarako beharrik izan, etab.) eta laranja bukatu gabe gelditu direnak edota aurreikusia ez zegoen modu batean garatu direnak:

ILDOA	JARDUERA KOPURUA	BAI		EZ		BERTZE	
		Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
1. SOZIALIZAZIOA (<16 urte)	23	17	% 74	4	% 17	2	% 9
2. HIZTUN BERRIAK	10	9	% 90	1	% 10	0	% 0
3. GIZARTE ERABILERA	62	29	% 47	24	% 39	9	% 14
4. CORPUSA	5	0	% 0	3	% 60	2	% 40
5. KUDEAKETA	25	17	% 68	6	% 24	2	% 8
GUZIRA	125	72	% 58	38	% 30	15	% 12

Horiez gain, aipatu behar da urteko jardueren planean aurreikusiak ez ziren 9 jarduera garatu direla.

Arantzan, 2022ko abenduaren 31an  
Euskara teknikariak  
Urko Ikardo Enparan eta Patri Arburua Etxeberria

➔ EKINTZA PLANAREN EBALUAZIOA



**Ildoa: HAUR-GAZTETXOEN (<16 URTE) SOZIALIZAZIOA**

Arloa: ETXEA		Lehentasuna: ALTUA		
JARDUERA	EBALUAZIOA			
1. Haur jaioberriak dituzten familiei zuzendutako euskarriak sortu eta helarazi, haurrak euskaraz sozializatzearen eta bereziki etxean euskarak ahalik eta presentzia handiena izatearen garrantziaren inguruan.	BAI	EZ	ERDIZKA	
	Abenduaren 31ra bitarte Bortzirietan jaiotzen diren 48 haurren familiei <i>Ongi etorri, jaioberri</i> materiala (liburuxka, eskutitza eta kotxerako pegatina) bidali zaie. Horrekin batera, euskal abizenak erdal grafiarekin dituzten gurasoei ere hori aldatzeko prozeduraren berri eman zaie (UEMAren materiala).			
2. Haurrak eskolatu berritan eskolak eta familiak beren sozializazio prozesuan betetzen duten funtzioei buruzko mezuak eta euskarriak (idatzizko euskarriak, geletako bilerak...) sortu eta 3 urteko haurrak dituzten familiei helarazi: <ul style="list-style-type: none"> <li><i>Familia eta eskola. Norabide berean</i> argitalpena banatu.</li> </ul>	BAI	EZ	ERDIZKA	
	<i>Familia eta eskola norabide berean</i> liburuxka banatu zaie 3 urterekin eskolatu diren haur guzien familiei, ikastetxeen bitartez. Material berria da, Nafarroako mendialdeko euskara zerbitzuek elkarlanean landua. Ikastetxeen bitartez banatu da, ERA zorroarekin batera.			
3. Euskaraz ez dakiten gurasoei hitzaldiak, tailerrak, baliabideak... eskaini gurasoek haurra euskaraz sozializatzeko prozesuan bete dezaketen funtzioak eta etxean euskarak presentzia ahalik eta handiena izatearen garrantziaz.	BAI	EZ	ERDIZKA	
	<i>Solasean</i> proiektuan parte hartzen duten haurren familiei hainbat baliabideren berri eman zaie sistematikoki (ERA zer den azaltzen duen bideoa, Euskaraz Kilika programaren berri, etab.). Ez da hitzaldi edo tailerrik antolatu, azken saiakerak ez zirelako ongi atera.			
4. Gurasoen hizkuntza ohituretan eragiteko tailerrak antolatu, bereziki UEMAren HEDATU programaren bitartez.	BAI	EZ	ERDIZKA	
	UEMAren HEDATU programak gurasoentzat eskaintzen dituen tailerren berri eman zaie ikastetxeei baina ez dira antolatu.			
5. Teknikariaren sareak kudeatzean duen era.eus webgunea elikatu eta edukiak zabaldu.	BAI	EZ	ERDIZKA	
	<ul style="list-style-type: none"> <li>ERA promozionatzeko euskarriak argitaratu: eskuorria eta zorroa.</li> <li>ERA webgunea hornitzeko edukiak sortu: 2 ipuin interaktibo berri sortu.</li> <li>Agenda hornitu: Bortzirietan haur eta familientzat antolatutako ekitaldiak ERAren agendara igo: 17 ekitaldi.</li> <li>Sare sozialetan mezuak zabaldu.</li> </ul>			

6. Hurrekin erabiltzeko euskarazko kantu, jolas, formula eta antzekoen gaineko baliabideak eskaini.	BAI	EZ	ERDIZKA
	Etxepare erakusketa eta Intza Alkainen hitzaldia ( <i>Nola erakarri haurrak euskaraz irakurtzera?</i> ) Lesakan. Erakusketan nahiz hitzaldian herritar gutik hartu dute parte.		

Arloa: ESKOLA		Lehentasuna: ALTUA	
<b>JARDUERA</b>	<b>EBALUAZIOA</b>		
7. 0-3 urte bitarteko haurrak dituzten familiei zuzendutako euskarriak sortu eta helarazi, euskarazko murgiltze eredia hauta dezaten aholkatuz. Beran D ereduaren aldeko kanpaina 2018-2020 bitartean jaiotakoentzako familiei zuzendua.	BAI	EZ	ERDIZKA
	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Beran 2019-2021 bitartean jaiotako haurren familiei eskutitza eta D ereduaren aldeko argudioak hainbat hizkuntzatan. Kartelak zortzi hizkuntzatan herrian barrena.</li> <li>• A eredia Beran izaten ari den hazkundera ikusirik, zenbait bilera egin ditugu udal ordezkariekin. Tartean bat eskualdeko hezkuntza ikuskariarekin. 2023ko hasieran egin beharreko kanpaina diseinatu dugu.</li> </ul>		
8. Hezkuntzaren maila guzietan ikasleei baliabideak eta formakuntza eskaini, hizkuntza jarreraren inguruan eta zehazki arnaguneen garrantziaren inguruan; ekintza UEMAREN HEDATU programaren bitartez garatuko da bereziki, baita EIBZren Motibazioa Sustatzeko Baliabideak blogaren bidez ere.	BAI	EZ	BERTZE
	<p>2021-2022 ikasturtean (urt-ek):</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• UEMAK HHko 5 urteko geletarako sortutako Mokotxiki material berriaren banaketa egin dugu. Horren inguruko formakuntza egitera animatu dira Landagain ikastetxeak, eta hori antolatu dugu maiatzean.</li> <li>• Jesusen Bihotza ikastetxeak eskatuta, bertan UEMAREN "Euskarari eusteko jarraibide edo estrategiak" ikastaroa antolatu dugu apirilean (bi irakasle).</li> <li>• Ekainean Bixitailerrak egin ditugu. Berako kultur etxeko erakusketa gelan egon da UEMAK prestatutako erakusketa, eta Toki Ona, Arantzako eskola eta Labiagako ikastolekin gaia landuta, DBH1 eta 2ko ikasle guzietan parte hartu dute UEMAKO teknikariak gidatutako erakusketan.</li> <li>• HEDATU programaren balorazio inkesta bidali dugu ikastetxeetara, baina bik bakarrik erantzun dute.</li> </ul> <p>2021-2022 ikasturtea (urr-aben):</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• HEDATU programaren azalpena egin dugu ikastetxe guzietan irailean. Ikasturte hasierako zurrunbiloan arreta gehiegirik ez zaio jarri, eta urtarrilean zehatzago azaltzekotan gelditu gara.</li> <li>• Arantza, Igantzi eta Etxalarko ikastetxeek Bagoaz tailerra (LH6) egiteko interesa agertu dute, baina maiatzean.</li> </ul>		

12. Hezkuntza arloko eragileekin mahai teknikoak sortu.	BAI	EZ	BERTZE
	Mahairik ez da sortu oraingoz, baina lehen urratsak egin dira. Galdetegi bat prestatu eta ikastetxe guzietara bidali dugu, Bortzirietan euskarak hezkuntza arloan dituen erronkak elkarlanean lantzeko aukerei buruz. Jesusen Bihotza ikastetxeak izan ezik, guziek erantzun diote galdetegiari eta urtarrilaren 27an elkartzea adostu dugu.		
13. Ikasleek euskaraz sozializatzeko dituzten hutsuneak aztertu eta baliabide egokiak erabaki (hezkuntza arloko mahai teknikoan).	BAI	EZ	BERTZE
	Mahai teknikoaren osaketarekin lotua dago		
14. Ikastetxeei hizkuntza planean laguntza teknikoak eskaini eta hizkuntza irizpideak landu.	BAI	EZ	BERTZE
	<ul style="list-style-type: none"> <li>Bere egunean ikastetxe guzietan eskaini genien laguntza plan hori osatzeko. Bi ikastetxe eskatuta, haien plana osatzen laguntzeko bilera egin dugu eta baliabideen zerrenda eskaini diegu.</li> <li>Irailean ikastetxe guzietan banatu zaie mankomunitatetik plan horiek osatzeko eskaintzen zaizkien baliabide guzietan zerrenda.</li> </ul>		

Arloa: AISIALDIA, KULTURA, KIROLA ETA LAGUNARTEA		Lehentasuna: ALTUA	
<b>JARDUERA</b>	<b>EBALUAZIOA</b>		
15. 5 urteko haurrak dituzten familiei zuzendutako euskarriak sortu eta helarazi, haurren aisialdia euskaraz izatearen garrantzia azalduz: <ul style="list-style-type: none"> <li>“Eta eskolatik kanpo, zer?” esku orria: edukien lanketa eta argitalpenaren kudeaketa / banaketa Bortzirietan.</li> </ul>	BAI	EZ	BERTZE
	<i>Eta eskolatik kanpo, zer?</i> materiala: <ul style="list-style-type: none"> <li>Izen bereko bideoa ekoitzi dugu. Teknikarien sareko Aisialdi lantaldearen ardura izan da (Patri). Kontaktuak, gidoia, produkzioa eta bideoaren ardura erabat bertako teknikariaren gain, Lesakan grabatzea erabaki baitzen. Bideoak harrera ona izan du, batik bat ikastetxeetan. LH1eko bileretan erabiltzea proposatu zaie, baina gehienek ikas maila guzietan erabili dute.</li> <li>Eskuorria LH1eko ikasle guzietan banatu zaie, ikastetxeen bitartez.</li> </ul>		
16. Guraso elkarteekin eta herrietako kultur eragileekin lanketa egin haur eta gaztetxoentzako kultur eta aisialdi eskaintzaren gaineko hizkuntza irizpideei buruz.	BAI	EZ	BERTZE
	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ez dugu gaiari heltzeko modurik izan.</li> <li>UEMArekin elkarlanean lantzekoa da.</li> </ul>		
17. <i>Euskarazko produktuen katalogoa</i> (paperezkoa, digitala eta bertzelako euskarriak) banatu: <ul style="list-style-type: none"> <li>Euskarriak: katalogoa, poltsa, orri markatzaileak eta kartelak.</li> </ul>	BAI	EZ	ERDIZKA
	Katalogoaren banaketa azaro bukaeran egingo da, 0-3 urte bitartekoena posta arruntez eta 3-12 bitartekoena ikastetxeen bidez. Horrez gain, webgunetik eta sare sozialen bidez ere zabalduta da.		

<p>18. Euskarazko udaleku itxien berri eman:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Euskarazko udalekuen bilduma osatu, euskarri digitala diseinatu (lantaldean).</li> <li>Zabalkundea Bortzirietan.</li> </ul>	BAI	EZ	BERTZE
	Euskara teknikarien sareko Aisialdi Lantaldetik (Patri) kudeatua. Papereko euskarririk ez da egin eta zabalkundea sare sozialen eta ikastetxeen bidez egin da.		
<p>19. Pauso eta Salto udalekuak (UEMA) sustatu.</p>	BAI	EZ	BERTZE
	UEMAk antolatzen dituen udalekuen zabalkundea egin dugu. Batik bat Toki Ona institutuan, baita sare sozialen bidez ere. Bera eta Lesakako hainbat gaztek izen eman dute, baina toki faltagatik 3 bakarrik joan ahal izan dira.		
<p>20. Teknikarien sareak kudeatzen duen era.eus webguneko eskualdeko kultur eta aisialdi agenda elikatu eta edukiak zabaldu.</p>	BAI	EZ	BERTZE
	Ikusi 5. jarduera.		
<p>21. Udaleku irekiak antolatu.</p>	BAI	EZ	BERTZE
	Balorazio orokorra egina. Guzira 241 parte hartzaile, eta 22 begirale kontratatuak.		
<p>22. Begirale, hezitzaile eta entrenatzaileentzako hizkuntza dinamizazioko prestakuntza teknikoa antolatu eta eskaini (ikastaroak, tailerrak, materiala eta gainerako baliabideak), hizkuntza irizpideen eta hizkuntza kalitatearen inguruan.</p>	BAI	EZ	BERTZE
	<ul style="list-style-type: none"> <li>Udalekuetako begiraleentzako ikastaroa antolatu dugu, Oinherri elkartearekin (UEMArekin hitzarmena egina), ekainaren 15ean.</li> <li>Futbol entrenatzaileentzako ikastarorako proposamena egin zaie Beti Gazte eta Gure Txokoa elkarteei; Beti Gazte elkarteak ez du parte hartuko, eta Gure Txokoarekin hainbat kontaktu egin dira, zuzendaritzarekin nahiz entrenatzaileekin, baina ez dute erantzunik eman.</li> </ul>		
<p>26. “Irakurriz gozatu” egitasmoan parte hartu:</p>	BAI	EZ	BERTZE
<ul style="list-style-type: none"> <li>“Beitu” agerkari digitala DBH4 ikasleen artean zabaldu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>2021-2022ko aurkezpena egin dugu Toki-Onan urte hasieran eta DBHko 4ko 45 lagun harpidetu dira (89 dira guztira, hortaz erditsua).</li> <li>2022-2023ko aurkezpena abenduan egina, Toki-Onan. Urtea bukatzerako 35 harpidetza eginak ziren.</li> </ul>		
<p>27. Eskoletan guraso tutore eta harreragileen sarea sortu, kanpotik etorritako haurrei eta familiei laguntzeko.</p>	BAI	EZ	BERTZE
	Ez dugu gaiari heltzeko modurik izan.		
<p>29. Euskara indartzea behar duten haur eta gaztetxoentzako (bereziki etorri berriak) egitasmoa garatu, aisialdia, motibazioa eta eskola indartzea uztartuz:</p>	BAI	EZ	BERTZE
<ul style="list-style-type: none"> <li><i>Solasean</i> egitasmoa Beran eta Lesakan.</li> <li><i>Euskaraz Kilika</i> programaren sustapena ikastetxeetan eta familien</li> </ul>	<p>Solasean:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Parte hartzaile kopurua 2021-2022: Beran 15; Lesakan 11. B ereduiko ikasle bat.</li> <li>Parte hartzaile kopurua 2022-2023: Lesakan 8; Beran 14). Berako Jesusen</li> </ul>		

artean.	Bihotza ikastetxeko B ereduko 4 ikasle. <ul style="list-style-type: none"> <li>Eskaintzaren baldintzak aldatu zirenez, udan egitasmo honen lizitaziorako prozedura egin genuen.</li> <li>InnovaLocal dirulaguntzen programara aurkeztu genuen proiektua baina ez zuten laguntzarik eman, kalifikazio hagitz altua eman bazioten ere.</li> </ul> Euskaraz Kilika programan urte osoan Bortzirietako 21 neska-mutikok hartu dute parte: Irain IP, 3; Labiaga Ikas, 7; Landagain IP, 6; RBaroja IP, 4; Jesusen Bih. 1.		
30. "Kuadrillategi" egitasmoa Beran eta 14-16 adin tartean eskaintzea aztertu.	BAI	EZ	BERTZE
Ez dugu gaiari heltzeko modurik izan.			



## Ildoa: HIZTUN BERRIAK

Arloa: EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA	Lehentasuna: ALTUA		
32. Euskalduntze-alfabetatzea sustatzeko urteroko matrikulazio eta sentsibilizazio kanpaina, motibazio praktikoetan eta identitarioetan oinarrituta, eta mendialdeko euskara zerbitzuekin elkarlanean. <ul style="list-style-type: none"> <li>Urtarrileko eta iraileko matrikulazio kanpainak.</li> <li>"Arkanbele kanta" ekitaldia.</li> </ul>	BAI	EZ	BERTZE
<ul style="list-style-type: none"> <li>Hiztun berriei ikusgarritasuna emateko bideoa egin eta hori baliatu dugu kanpainarako. Emaitzarekin kontent gaude; <i>Hamaika ikusteko!</i> bideoak 485 ikustaldi izan ditu.</li> <li>Bideoaren aurkezpenarekin prentsaurrekoa antolatu dugu, prentsan oihartzuna izan duena. <a href="https://www.noticiasdenavarra.com/navarra/2022/09/16/bortziriek-video-matriculacion-euskaltegi-6015721.html">https://www.noticiasdenavarra.com/navarra/2022/09/16/bortziriek-video-matriculacion-euskaltegi-6015721.html</a></li> <li>Irailaren 23an euskaltegiak kontzertua antolatu du Berako kultur etxean, mankomunitatetik finantzatu da (500 €); ez zen aurreikusia.</li> <li>Matrikulazioek gora egin dute aurten, 60 ikasletik gora hasi ziren urrian, eta horiei gehitu behar zaizkie Arantzako ikasleak eta Lesakako kiroldegian egonkortzea dela antolatu den ikastaroan parte hartzen ari diren langileak.</li> <li>77 ikasle guztira Bortzirietako Euskaltegian eta hasi berriak 47.</li> </ul>			

<p>33. Hitzun berriek ikusgarritasuna izan dezaten eta gizarte bizitzan euskaraz parte har dezaten ekintzak, hitzun talde honi prestigioa eta zilegitasuna emanen diotenak.</p>	BAI	EZ	BERTZE
<p>34. Bortzirietako Euskaltegiarekin elkarlanean ikastaro berezituak antolatu (euskalduntzera hurbiltzeko ikastaro laburrak, alfabetatzeko ikastaroak adin talde eta sektore zehatzentzat, arlo zehatzekin lotutako ikastaro espezifikoak...).</p>	BAI	EZ	BERTZE
<p>37. Euskara ikasten ari direnei dirulaguntza eman.</p>	BAI	EZ	BERTZE

Jarduera hau bete dugu bideoarekin eta matrikulazio kanpainako prentsaurrekoarekin. Albak, Nuriak, Marinak eta Manuk parte hartu dute bertan. Pena izan da Marinaren audioarekin arazoa izan dugulako; bere bi bideo labur hagitz onak gelditu zaizkigu editatu gabe. Bideoak eta komunikazio kanpainak balio izan dute hitzun berriei ikusgarritasuna eman eta aitortza egiteko.

Bi ikastaro berezi antolatu ditugu Euskaltegiarekin elkarlanean:

- Irailaren 29an Arantzan kanpotik etorritako herritarrei ongi etorria emateko saioa egin genuen eta bertatik sortu da 8 ikasleko taldea, Arantzan bertan; astean bi orduko ikastaroa da.
- Lesakako kiroldegitik eskaera egin digute ikastaroa antolatzeko egonkortze prozesua dela eta; C1/B2 mailako ikastaroa da eta ortzirale goizetan egiten dute (3 ordukoa). Aipatzekoa da ikastaro hau eskaintzeko Euskaltegiak ahalegin handia egin duela.

2022-2023 ikasturterako deialdia onartu da maiatzean. Uztailean, 2021-2022 ikasturteko bigarren zatia ebatzi dugu (baita dirulaguntza aitzintzea eskatu ez dutenei ere).

2021-2022 ikasturteari dagokionez, bukaeran guzira 46 beka eman dira:

- 32k falta bigarren zatia (%25) hartu dute.
- Bertaratzea kontuan hartuta, 8k ez dute bigarren zatia jaso (% 75 ikasturte hasieran jaso).
- 6k bekaren % 100 ikasturte bukaeran jaso dute.

2022-2023 ikasturteari dagokionez, urriaren 14a baino lehen (eskaera egiteko epearen barne) 60 eskaera jaso ditugu, dirulaguntzaren zati handiena ikastaroa hasi eta berehala jasotzeko. Azaroaren 21ean ebatzi da.

- Horietako batek ez zituen laguntza jasotzeko baldintzak betetzen.
- 59k hasierako % 75a jaso dute.



38. Bortziritako dirulaguntza sistema, doakotasuna ortzimugan duena, garatu.	BAI	EZ	BERTZE
	Urtero ari gara deialdia fintzen. UEMArekin lantzen ari gara Nafarroako Gobernuak eskaintzen dituen dirulaguntzak baliatzeko aukera. Deialdi berrian gehieneko muga handitu dugu (700 €). Aurten eskaerak administrazio elektronikoaren bitartez egiteko aukera izan bada ere, ikasleek ez dute erabili.		
39. Bortziritako Euskaltegiarekin koordinazio gune iraunkorra.	BAI	EZ	BERTZE
	Bortziritako Euskaltegiko irakasleekin 2 koordinazio bilera egin ditugu, maiatzean eta ekainean. Udazkenean ez dugu bilerarik egin, hartu emana etengabea izan bada ere (prentsurrekoa, ekitaldia, ikastaro bereziak, etab.).		
40. Bortziritako Euskaltegiari dirulaguntza ematea.	BAI	EZ	BERTZE
	Aurreikusi bezala.		
41. Bortziritako euskalgintzaren gogoetaren barne, eta beharrezkoa balitz berariaz, Bortziritako euskalduntze-alfabetatzearen etorkizuneko antolamenduari buruzko gogoeta sustatu eta lagundu.	BAI	EZ	BERTZE
	Euskalgintzaren gogoeta burutua dago eta euskalduntze-alfabetatzearen antolamenduari buruzko gogoeta abiatzea euskaltegiari dagokio; mankomunitateak prozesu hori laguntzen ahal du. Nolanahi ere, aipatzekoa da mugimenduak badirela: Matxinbeltzenea saltzeko urratsak egiten ari dira.		

<b>Arloa: TRANTSIZIOA IKASTETIK ERABILTZERA</b>		<b>Lehentasuna: ALTUA</b>	
42. Euskalduntze prozesuan daudenei erabilerara jauzia egiteko bide eman: Solaslaguna, Mintzodromoa eta mintzapraktika egitasmoak.	BAI	EZ	BERTZE
	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 2022-2023 ikasturtean: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Izen emanak Bortziritan: <ul style="list-style-type: none"> <li>○ 3 talde eta 15 lagun (12 bidelari eta 3 bidelagun).</li> <li>○ 2 talde Beran eta bat Lesakan.</li> <li>○ Orotara: 42 (gizonezkoak % 61,1 eta emakumezkoak % 37,9).</li> </ul> </li> <li>• Jarduera osagarriak: <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Udazkeneko ferietan postua jartzea.</li> <li>○ Azaroaren 29an Bortziritako eta Malerrekako mintzodromoa.</li> <li>○ Abenduaren 9an Bortziritako Solaslagunen berendua.</li> <li>○ Abenduaren 17an Baionara irteera.</li> </ul> </li> </ul> </li> <li>• Jarraipen bilerak (3): Maiatzean, irailean eta abenduan.</li> <li>• Irailtik aitzinera dinamizatzaile berria: Xabier Iriarte.</li> </ul>		

43. Elaide.eus garatu, Nafarroako euskara zerbitzuok elkarlanean sortutako webgunea, euskara ikasleak motibatu, eta erabilerarako jauzia emateko baliabideak eskuratzeko.	BAI	EZ	BERTZE
	<p>Urkok egitasmoa utzi du sareko koordinazio gunean aritzeko, udatik aitzinera ez da ari egiten koordinazio eta edizio lanik. Agenda elikatzen dugu Bortzirietako kultur ekitaldiekin eta berriki sustapen kanpainatxoak egin dugu.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Albisteak orotara 60 eta Bortzirietako 25 ekitaldi agendan.</li> <li>• Bilerak (2): martxoan eta ekainean.</li> <li>• Zabalkundea: sare sozialetan kanpaina bereziki. <ul style="list-style-type: none"> <li>○ <a href="https://www.bortziriak.eus/elaide-eus-webgunearen-euskararen-bidean-aitzina/">https://www.bortziriak.eus/elaide-eus-webgunearen-euskararen-bidean-aitzina/</a></li> </ul> </li> <li>• Atal berria: Musikaz blai atala sortu dugu Elaideren barne, mendialdeko euskara zerbitzuen ekimen berri hori webgune honetan probesteko. <ul style="list-style-type: none"> <li>○ <a href="https://elaide.eus/eu/orria/gorka-urbizu">https://elaide.eus/eu/orria/gorka-urbizu</a></li> </ul> </li> <li>• Diseinuan hobekuntzak egin dira.</li> </ul>		



## Ildoa: GIZARTE ERABILERA

<b>Arloa: AKTIBAZIOA ETA SENTSIBILIZAZIOA</b>		<b>Lehentasuna: ALTUA</b>	
45. Herritarrek Euskaraldian parte har dezaten lortu, Euskaraldiko antolaketa lagundu, gizarte mugimenduekin elkarlanean.	BAI		
	<p>Bortzirietako Euskaraldiko batzordea 8 aldiz bildu da; balorazio bilera abenduaren 12an egin dute. Osaketa: bi hautetsi, bi dinamizatzaile, eta bi herritar euskaltzale (beratarrak).</p> <p>Balorazioa: datuetan eta dinamikan apaltzea. Entitate batzuek ez duten izena eman berandu ibili direlako, erabakia hartua bazuten ere. Datuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Herritarrak: 1.151</li> <li>• Entitateak: 84</li> </ul> <p>Toki-Onako ikasleekin ekitaldia egin da (&gt;16 urte); Jokin Pinatxok kantaldia eskaini du. Balorazioa baikorra da.</p> <p>Teknikariak batzordean ez parte hartzeak zaildu egin du komunikazioa eta Bortzirietako ikuspegiari gehiago begiratzea. Dinamizatzaileek eta batzordekideek lan txukuna egin dute. Falta izan da herrietako ordezkariak orekatua, euskaltzale boluntario gehiago, entitateak gehiago lantzea, etab.</p>		

46. UEMArekin baitan eta UEMArekin elkarlanean arnaguneak balorean jartzeko herritarrentzako saioak eta euskarriak.	BAI	EZ	BERTZE
47. “Arnasa gara” kanpainari jarraipena egitea. <ul style="list-style-type: none"> <li>• Arnaguneen balioa gizarteratzeko UEMAK prestatutako 8 bideo-esketxen zabalkundea Bortzirietan.</li> </ul>	BAI	EZ	BERTZE
48. Hizkuntza praktikei buruzko gogoeta eta sentsibilizazioa etorri berriei dagokienez (BHHP).	BAI	EZ	BERTZE
49. Korrikaren Bortzirietako antolaketan parte hartu eta ekimena babestu.	BAI	EZ	ERDIZKA
51. Bortzirietako euskararen berreskurapen prozesuari buruzko ikus-entzunezkoa egin eta zabaldu.	BAI	EZ	BERTZE

<b>Arloa: TOKIKO ADMINISTRAZIOA ETA ZERBITZU PUBLIKOAK</b>			<b>Lehentasuna: ALTUA</b>
54. UEMArekin koordinatu eta elkarlanean ari, udal erabilera planen gauzapenean eta jarraipenean.	BAI	EZ	BERTZE

	<p>erabilera planaren eta hizkuntza irizpideen inguruan.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Eragite lanei dagokienez, honako hauek landu genituen UEMAKo teknikariarekin elkarlanean: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Animsaren kasuan, euskararekin izaten diren intzidentzien bilduma egin eta hango arduradunei helarazten zaizkie, UEMAKo teknikariaren bitartez.</li> <li>• Toki Ogasunen Legea euskaratzeko tramiteak egin dira.</li> <li>• 2021ean NUKFari UEMAKo udaletatik eskatu zitzaion eskaintzen dituen zerbitzuak euskaraz izan daitezen. Erantzuna 2022ko martxoan etorri da. Erantzun hori toki entitateetara zabaldu genuen.</li> <li>• Nafarroako Lurralde Estrategia lantzeko prozesuan izan diren bilera parte hartzaileetarako ekarpenak landu ditugu, baita bukaerako txostenari egin beharrekoak ere.</li> </ul> </li> </ul>		
55. Mankomunitateetan erabilera planak abiatu eta jarraipena egin.	BAI	EZ	BERTZE
	<p>Bi saiakera egin ditugu. Udan mezua bidali dugu gizarte zerbitzuetara, baina udazkenerako uztea eskatu digute. Urrian mezua bidali diegu jarraipenaren data adosteko, baina ez digute erantzun. Mankomunitateetako planekin jarraitzekotan bertze inplikazio bat beharko dugu haien aldetik.</p>		
56. Udalen menpeko erakundeetan (kiroldegiak, musika eskolak, zahar etxeak...) erabilera plan berezituak egin eta hizkuntza irizpideak landu, UEMArekin elkarlanean.	BAI	EZ	BERTZE
	<p>Euskaraldia zetorrela baliatuta, saiakera egin dugu Berako eta Lesakako zahar etxeetan hizkuntza irizpideen eta langileen euskalduntzearen gaia lantzeko. Berako herriko etxean bilera egin dugu udal ordezkari eta zahar etxeko arduradunekin.</p>		
58. Hizkuntza eskakizunen jarraipena egin, eta udal administrazioetan sartzeko euskara probak bideratu. <ul style="list-style-type: none"> <li>• Euskara probak bideratzea.</li> <li>• Hizkuntza eskakizunen txostenak egitea.</li> </ul>	BAI	EZ	BERTZE
	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bideratutako probak (6): <ul style="list-style-type: none"> <li>• Administrariak Lesakan.</li> <li>• Atezaina Lesakan.</li> <li>• Zerbitzu anitzetako langilea Lesakan.</li> <li>• Garbiguneko zerbitzuen arduraduna.</li> <li>• Kirol teknikariak Lesakan.</li> <li>• Sorosleak Lesakan.</li> </ul> </li> <li>• Egindako probak (5): <ul style="list-style-type: none"> <li>• Garbitzailea Arantzan.</li> </ul> </li> </ul>		

	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Peoiak Igantzín.</li> <li>• Zerbitzu anitzetako langilea Arantzan.</li> <li>• Begiraleak BEM (2).</li> <li>• Egindako txostenak (3)</li> </ul> <p>Horrez gain, Bortzirietan euskara proba gáinditu duten izangaiak salbuesteko akordioa hartu dugu.</p> <p>Udazkenean ez dugu euskara probatik izan, baina udal langileen egonkortze prozesuak eta euskararen ezagutza egiaztatze Euskarabideak antolatu duen euskara probak (deialdiak) dezenteko lana ekarri digute. Idazkariekin eta udal langileekin harremanetan izan gara. Egindako txostenak (6).</p>			
59. Bortzirietako udal eta mankomunitateetako udal langileen euskarazko etengabeko prestakuntzarekin jarraitu.	<table border="1"> <tr> <td>BAI</td> <td>EZ</td> <td>BERTZE</td> </tr> </table> <p>Martxo-apirilean 4 orduko ikastaroa antolatu dugu Mikel Tabernarekin: "Administrazioko idazkera eta bertako euskara". 13 langilek eman dute izena (idazkari, teknikari eta administrariak), azkenean 11 aritu dira, eta 6k egin dute ikastaroa osorik.</p>	BAI	EZ	BERTZE
BAI	EZ	BERTZE		
60. Udaletan eta udalez gáindi egiten diren hirigintza proiektuetan hizkuntzaren eragina neurtu eta neurri zuzentzaileak proposatu (ELE tresnaren aplikazioa UEMArekin elkarlanean.	<table border="1"> <tr> <td>BAI</td> <td>EZ</td> <td>BERTZE</td> </tr> </table> <p>Ez da suertatu tresna hau aplikatzeko moduko proiekturik.</p>	BAI	EZ	BERTZE
BAI	EZ	BERTZE		

<b>Arloa: ARLO SOZIOEKONOMIKOA</b>		<b>Lehetasuna: ALTUA</b>		
61. Komunikazio estrategia finkatu eta koordinatu bertzelako eragileekin (UEMA, Euskarabidea, Kontseilua, Eusko Jaurlaritza, etab.).	<table border="1"> <tr> <td>BAI</td> <td>EZ</td> <td>BERTZE</td> </tr> </table> <p>Oraingoz ez dago estrategia bateratu baterako proposamenik edo ekimenik. Merkataritza arloan bada marka bateratu bat sortzeko egitasmoa. UEMA Eusko Jaurlaritzarekin ados jarri da zenbait herritan modu pilotuan abiatzeko, Bera izan da horietako bat. UEMAKo teknikariak bisitak egin ditu 60 establezimendutan eta 40k parte hartu dute. Balorazioa heldu den urtean izanen dugu. Zenbait dendari kexu agertu da kanpaina Euskaraldiarekin batera egin delako.</p>	BAI	EZ	BERTZE
BAI	EZ	BERTZE		
65. Lantegietan langileen arteko erabilera informala sustatu.	<table border="1"> <tr> <td>BAI</td> <td>EZ</td> <td>BERTZE</td> </tr> </table> <p>Euskaraldiarekin sustatu nahi dugu erabilera informala, eta horretarako dinamizatzailea zenbait enpresatako ordezkariarekin harremanetan izan da. Hala ere, ez da lortu aitzineko edizioetan bezala lantegietan eta langileen ekimenez zerbait berariaz egitea.</p>	BAI	EZ	BERTZE
BAI	EZ	BERTZE		

<p>67. Lan arloan eta enpresetan erabilera planak abian jartzeko dirulaguntzen berri eman eta aholkularitza eskaini.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Euskarabideko dirulaguntza deialdiaren gaineko informazioa eta aholkularitza eskaini ditugu.</li> </ul>	BAI	EZ	BERTZE
<p>Bilerak egin ditugu (Arcelor, Martiko eta Zalain) eta lehendakariaren gutuna bidali dugu hainbat enpresatara, horietan euskara txertatzeko gidaliburuarekin batera. Interesa agertu bai, baina Bortzirietatik ez da dirulaguntza eskaerarik egin. Abenduan ez dugu bilerarik eginen, urtarrean helduko diogu gaiari.</p>			
<p>68. Lan arloan eta enpresetan erabilera planak abian jartzea sustatu.</p>	BAI	EZ	BERTZE
<p>Enpresetan euskara txertatzeko gidaliburua egin dugu Mendialdeko euskara zerbitzuok elkarlanean. Euskarabidearen dirulaguntzaren berri emateko prestatu genuen lehendakariaren gutunarekin batera bidali genuen.</p>			
<p>69. Ostalaritza eta merkataritza establezimendu berriak ireki aitzinetik errotuluak, paisaia linguistikoa, euskaraz lan egiteko baliabideak eta irizpideak eskaini, udalekin elkarlanean.</p>	BAI	EZ	BERTZE
<p>Gaiari ezin izan diogu heldu.</p>			
<p>70. Ostalaritza eta merkataritza arloko eragileak aktibatu, bezero eta erabiltzaileekiko harremanean lehen hitza euskaraz izan dadin.</p>	BAI	EZ	BERTZE
<p>Jarduera hau Euskaraldiarekin lotzen da.</p>			
<p>71. "Herrian erosi, euskaraz erosi" egitasmoa garatu, material eta zerbitzu eskaintza zabaldu.</p>	BAI	EZ	BERTZE
<p>11 establezimendutara bisita (AHIZE aholkularitzaren bitartez), gehienak kafetegi, okindegi eta gozo-denda, gehi bi elikagai denda. Diagnostikoa egiteaz gain, material eta ikastaro berezituaren eskaintza egin dugu.</p>			
<p>72. Berako bentetako eragileekin sentsibilizazioa landu, euskararen balio erantsia erakutsaraziz.</p>	BAI	EZ	BERTZE
<p><i>Herrian erosi, euskaraz erosi</i> kanpainaren sustapena probestu dugu Biok bentan eragiteko. Jarrera baikorra erakutsi dute.</p>			
<p>74. Turismo arloko eragileak aktibatu, bisitarietikiko harremanean euskara balorean jartzeko eta hizkuntzari buruzko informazioa emateko.</p>	BAI	EZ	BERTZE
<p>Ez da landu; 2023ko planean jaso da.</p>			
<p>76. Bisitari eta turistei euskararen berri emanen dieten euskarriak sortu eta zabaldu, euskara (agurrak, esapide laburrak...) erabiltzera bultzatuz; kasu batzuetan UEMArekin elkarlanean.</p>	BAI	EZ	BERTZE
<ul style="list-style-type: none"> <li>Eskualdera datozen turistentzako <i>Ongi etorri! Hemen euskaraz bizi gara</i> argitalpena argitaratu dugu. Paperean argitaratzeaz gain (6.000 ale), pdf interaktiboa ere egin dugu, turismo arloko eragileek webguneetan zintzilikatzeko eta sare sozialen bitartez zabaltzeko.</li> <li>UEMAREN Bertatik Bertara kanpainaren zabalkundea Bortzirietan. Bereziki harrera ona dute jatetxeetan banatzen diren mahai gainekoek.</li> </ul>			

Arloa: INGURUNE DIGITALA		Lehentasuna: BAXUA	
78. Herritarrek eta entitateek programa informatikoak, softwareak, aplikazio informatikoak eta sare sozialak euskaraz erabiltzeko informazio eta sentsibilizazio kanpainak.	BAI	EZ	BERTZE
	Sare sozialei buruzko lehen bideoa egin eta zabaldu dugu. Ekainaren 6an argitaratu dugu eta hilabete batean 174 ikustaldi izan ditu bideoak. Asmoa da serie bat izatea: eskuko telefonoak, Internet, programa informatikoak, etab.		
79. Euskarazko ingurune digitalaren erabileran trebatzeko ikastaro eta tailerrak eskaini. <ul style="list-style-type: none"> <li>Euskarabideko "Sarean euskaraz" eskaini.</li> </ul>	BAI	EZ	BERTZE
	Etxalarren "Gamer gela" ikastaroa eskaini dugu, Euskarabideak antolatzen duen "Sarean euskaraz" kanpainaren barrenean, baina azkenean ez du inork izena eman.		
80. Merkatari, elkarte, enpresa, norbanako, etab.en webgune eta aplikazio informatikoak euskaraz egon daitezen aholkularitza (eta dirulaguntzak).	BAI	EZ	BERTZE
	Dirulaguntzen plan estrategikoan webguneetarako dirulaguntza lerroa aurreikusi dugu eta ereduak bildu ditugu, deialdiaren oinarriak prestatzeko.		

Arloa: TOKIKO KOMUNIKABIDEAK		Lehentasuna: BAXUA	
81. Eskualdeko komunikabideentzako diru laguntzak kudeatu. <ul style="list-style-type: none"> <li>Ttipi-ttapa aldizkariari eta Xorroxin irratitari dirulaguntza.</li> </ul>	BAI	EZ	BERTZE
	Aurreikusi bezala gauzatu da.		

Arloa: KULTURA		Lehentasuna: ERTAINA	
